

Herririk Herri | 2

23 urteko emakume baten heriotza argitzea eskatu dute Durangon



Berbaz | 8

Iñigo Bolinaga: "Historian 'txarrak' izan direnen ikuspegia ulertzen saiatzen naiz"

Kultura | 13

Ezkurdiko kioskoaren 110. urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko dute

DURANGO | 2

Berbalagunak audiogidekin herria hobeto ezagutu guran

Hamalau geldialdiko ibilbide bat prestatu dute Durangon, audiogidekin entzuteko

Turistentzat ez ezik, herritarrentzat ere interesa duten datuak daudela ikusi dute Berbalagunek



Berbalaguneko kide batzuk audiogidekin, Lariztorre aurrean. Kepa Aginako

KIROLA | 17

Zaleek esperantza gorde dute Errege Kopako finalerako

Durangaldean etsipena eragin zuen Europa League finalean Athleticek jasotako porrotak. Baina baten baino gehiagoren ahotik itxaropenerako mezua ere zabaldu zen: "Errege Kopa irabaziko dugu, seguru".



Z. Fuertes

Atxondo | 3

Ekainaren 15erako igerilekuak konpontzea gura du udalak

Iurreta | 4

Abadetxea konpontzeko lanak hasi ditu gotzaitegiak asteen

Elorrio | 7

Nanuk-eko beharginek bertan behera utzi dituzte mobilizazioak

Durangaldea | 6

Ibaizabaleko kutsadura iturriak aztertuko ditu Foru Aldundiak

LOTU ZURE ETORKIZUNA!

IURRETA INSTITUTUA
Durangaldea Lantze Heziketako Berriak Institutua

Ateak zabalik
Maiatzaren 17an
10:00etatik 12:00etara

Tel.: 94 466 88 00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

Herria hobeto ezagutu audiogida baten laguntzagaz

Hamalau geldialdiko ibilbidea arreta handiagaz bisitatu du Berbalagun egitasmoko talde batek

Udaletxe aurreko plaza Gerra Zibilaren ondoren eraiki zuten. Iparraldean artilegileei *durangiar* deitu izan zaie. Udaletxean antzina eskola egon zen, eta geroago orain liburutegia dagoen eraikineri eroan zuten. Durangoren historiari buruzko kontuak dira, herritarrentzako ezegunak eurretariako asko.

Martxan ipini berri duten audiogida sistemagaz, Durango ko historia ezagutzeko ibilbidea egin daiteke. Turismo Bulegoan daude audiogidak edonoren esku-ra, eta bisitariarentzako produktua izateaz gainera, durangarrentzako eurentzako ere pentsatu dutela adierazi du Natalia Naveran turismo teknikariak.

Euskara praktikatzeko Berbalagun egitasmoan dabilen talde batek asteon egin du proba. Hasi aurretik, euskarazko bertsioa markatu dute Turismo Bulegoan, Lariztorren bertan. Alde Zaharretik, Ezkurditik, Kuruztiagatik... Ibilalditxo egin dute, audiogidek lagunduta. Bidean baldosa batzuk topatu dituzte, zenbaki batez. Audiogidan zenbaki hori zapaldu eta lekuari dagokion azalpena entzun dute.

Norbere herrian turista

"Ni ibilita nago amari errekan arropak garbitzen laguntzen". Bertakoak izanda, Durangoren historiari buruz zer edo zer badakite berbalagunek. Baina ibilaldiko beste



Andra Maria alboan Berbalaguneko kideen geldialdi baten.

kontu asko sorpresa izan dira. Gehiago ikasi eta norberak historiari buruz dakiena konpartitzeko aitzakia izan da ibilalditxo. Norbereraren herrian, turistak legez, begirada eraikinetara altxatu eta beste sasoi batzuetako Durango

Ordu eta erdi pasako ibilaldia da. Maiatzean bisita doan egin daiteke, eta ekainean euro bat kobratzen hasiko dira

irudikatzen goiz-pasa egin dute audiogidarekin.

Ordu eta erdi pasako ibilaldia da eta hamalau geraleku dauzka. Maiatzean bisita doan egin daiteke, eta ekainean euro bat kobratzen hasiko dira. ■ A. Ugalde

23 urteko emakume baten heriotza argitzea eskatu dute

Gizon bat atxilotu dute, emakumea giltzapetu izana leporatuta eta aske utzi dute gero; polizia-ikerketak hilketa baztertu duela azaldu du Ertzaintzak



Durango ko udaletxearen aurrean martitzen eguerdian egindako kontzentrazioa.

"Gertaera honen berri eman gura dugu eta baita gertatutakoa argitzea eskatu ere". Eskaera hori egin dute maiatzaren 5ean hildako emakumearen ikaskideek, lagunak eta senitartekoek. Juan de Iciar auzoko etxebizitza bateko leihotik jausita hil zen 23 urteko gaztea.

Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen heriotzagaz lotura izan ahalzuelakoan. Emakumea leihotik jausi aurretik giltzapetuta eduki izana leporatu diote. Akusazio horren pean, aske utzi dute gero, epaileak deklaratzera noiz deitu-

"Heriotza hau ez da ez komunikabideetan ez beste inon agertu"

ko zain. Ikerketak zabalik jarraitzen duen arren, hilketa baztertu dutela azaldu du Ertzaintzak: "Istripua izan zitekeen aztertzen gabiltza".

Emakumearen hurrekoek elkarretaratzea egin zuten martitzen eguerdian, Durango ko udaletxearen aurrean, heriotza ezagutzera

eman guran. "Gertaera hau ez da ez komunikabideetan ez beste inon agertu", kritikatu zuten. Ostean, gaztea hilik aurkitu zuten lekura joan ziren, Juan de Iciar auzoko etxe arteko patio batera, eta baita portalera ere. Kandelak piztu zituzten eta gertaera argitu dadila eskatzen zuten kartelak ere eskegi zituzten horman: "Badakigu, ikerketan hipotesi ugari aztertzen ari direla. Beharrezko ikusten dugu gertakari honen berri ematea, informatzea eta gertatu dena lehenbailehen argitu dadin eskatzea". ■ J. G.

Alarguntza-pentsioei buruzko jardunaldia, etzi

Emakume alargunak "desberdintasun egoeran" daudela kritikatu du alargunen federazioak

Alarguntza-pentsioa: berdintasun esperientzia? titulupean, alarguntza-pentsioaren legean egindako aldaketan berri eman eta informazioarako jardunaldia antolatu du Euskadiko Emakume Alargunen Federazioak Durangon. Domeka honetan, Landako Gunean eskainiko dute berbaldia, 10:00etatik aurrera.

Jardunaldia alargunei eta eurekin behar egiten duten profesionalen zuzenduta dago. Federazioko presidente Maite Bilbaoen berbetan, emakume alargunek "desberdintasun egoera" bizi

dute. Horren adibide ipini du langabezia subsidioa eta alarguntza-pentsioa bateragarri ez izatea.

Bilbaok nabarmendu du krisiak kaltetu egin dituela alargunak: "Askok, pensio miserablea izanda ere, langabezian gelditu diren seme-alabei lagundu behar diete". Andra alargunen perfila etxean behar egin duen emakumearena dela gogoratu du: "Senarrakotizatu zuen, eta ez da baloratzten alargunek etxean egin duten lana; ekonomia familiar hori ondo eroatea ezinbestekoa da sistema osoarentzat". ■ A. U.

Bezeroekin hartu-emanak hobetzeko saioa prestatu dute

Adimen emozionala eta *coaching* metodoa lantzeko ikastaroa prestatu du +Dendak merkatarien elkarteak. Azaldu dutenez, "merkataritzan tresna teknologikoak eta marketina erabiltzen dira berrikuntzarako, baina azken tek-

nologiek gutxirako balio dute ez badira salmentarako gaitasun pertsonalak lantzen". Komunikazio teknikak eta adimen emozionala landuko dituzte, bezeroa dendatik "konbentzitu eta asebeteta" irten dadin.

Maiatzaren 14an, 15ean, 16an, 21ean eta 22an eskainiko dute tailerra +Dendak-eko prestatuntzagelari, 14:30etik 16:30era. Izena emateko elkarteko telefonora -94 681 81 41- dei daiteke, edo comercio@masdendak.com helbidera idatzi. ■ A. U.



Lokalen ordenantza adosteko iritzia jasotzen hasiko dira

Kritiken ostean, ordenantza berriro idatziko dute eta adostasunak lortzeko batzarrak deitu dituzte

Gazte lokalen erabiltzaileek lokalak arautzeko Durangoko Udalak proposatutako ordenantza zorrotz egia zela kritikatu eta gero, inplikaturako eragileen iritzia jasotzen hasiko dira, ordenantza berridazteko. EHUko Politika eta Adminis-

trazio Zientzietako ikasle talde batek bideratuko du prozesu parte-hartzailea.

Lehen batzarra maiatzaren 26an izango da, eta lokalen erabiltzaileen eta lokalen jabeen iritzia jasoko dituzte. Hurrengo, auzokideen eta auzo-elkarteen iritzia jasotzeko izango da, ekainaren 2an. Azkena, ekainaren 9an egingo dute, eragile guztien arteko adostasuna bilatzeko. Batzar guztiak Elkarte-gian izango dira, 11:00etan.

Maiatzaren 26an, lokalen erabiltzaileen eta jabeen iritzia jasoko dituzte



Ordenantza salatzeko kalean lokal handi bat egin zuten martxoan.

GARAI

Martitzenean bazkaria egingo dute San Isidro eguna ospatzeko

Garaiko San Migel nagusien elkar-teak bazkaria antolatu du datorren martitzenerako. Baserritarren eguna ospatuko dute maiatzaren 15ean: San Isidro. Bazkariaz gainera, meza ere sartu dute egitarauan.

Elizkizunera 11:00etan elkartzeko deia egin dute. Gero,

14:00etarako ipini dute jatordua. Herriko Tabernan izango da bazkaria, eta oraindik badago izena emateko aukera. Tabernan bertan eman behar dute izena interesdunek, 30 euroren truke.

Herritar guztiei zabalik

Jai eguna nagusien elkar-teak eratu arren, herritar guztiei zabalik dagoela azaldu dute. Ohiturazko ekimena da martitzenekoa. Nagusien elkar-teko bazkide ez direnek aurreko urteetan ere parte hartu izan dute, antolatzaileek jakinarazi dutenez. ■ M. O.

ATXONDO

Isuria konpondu eta igerilekua zabaltzeko asmoa du udalak

Ura nondik galtzen duen bilatzen ari da brigada; alkateordearen berbetan, arazoak "benetan larria izan behar luke ez irekitzeko erabakia hartzeko"



Igerilekua urik barik dago gaur egun; brigada barrualdea eraberritzen ere ari da egunotan.

Ekainaren 15ean igerilekua zabalik izatea da Atxondo-ko Udalaren asmoa. Baina, horretarako, lehenengo eta behin igerilekuak ura nondik galtzen duen jakin behar dute, ostean konpondu ahal izateko. Egunotan azpiegitura eta hoditeria osoa aztertzen ari da udalaren brigada. Ur isuria aurkitzen dutenean martxan ipiniko dute "ohiko prozedura", Juanjo Nora alkateordearen esanetan, eta matxurak "benetan larria izan beharko luke ez

Atxondo moduko herri batek igerilekua izatea "luxu txiki" bat dela azaldu du Norak

zabaltzeko erabakia hartzeko". Alkateordearen esanetan "posible da irekiera eguna atzeratu behar izatea, baina gure asmoa igerilekua ohiko epeetan zabaltzea da".

Gogoratu duenez, igerilekua "egin zen egunetik bertatik" ari da

ura galtzen: "Arazoa estrukturala eta jatorrizkoa da".

Herrien arteko lankidetzak

Gaur egun Atxondo moduko herri batek igerilekua izatea "luxu txiki" bat dela azaldu du Norak: "Baina Elorrioren egin gura dutena zein beste herri askotan dagoena ere luxua dela uste dugu". Bide horretatik, eskualdeko hainbat herriren artean "lankidetzak sistema bat" garatzeko ideia hausnartu beharko litza-tekeela uste du. ■ J. Derteano

ZALDIBAR

Adostasuna haurreskola proiektuaren inguruan

Urgari Estudio taldearen 'Ederto' proiektua aukeratu dute epaimahaia eta herritarrek

Udalak izendaturiko epaimahaia eta herri galdeketa parte hartu duten 156 herritarrek bat etorri dira, eta Estudio Urgari taldeak 'Ederto' izenagaz aurkezturiko proiektua aukeratu dute. Haurreskolako eraikin berriarentze-

Biomasa eta eguzki energia bidezko berogailu sistema jasotzen ditu aurreproiektuak

ko proposamen egokiena iritzi diote, eta 85 puntu lortu ditu.

Hautaketa egiterakoan, eskola eremu osoa berrantolatzeko Urgari taldearen proposamena izan dute, kontuan, besteak beste. Bestalde, biomasa eta eguzki energia bidezko berogailu sistema jasotzen ditu, esaterako, ideia lehiaketako irabazleak.

Eraikinaren diseinurako proposamen hau oinarri hartuta egingo dute lan herriko hezkuntza arloko arduradunek eta udalaren ordezkariak datozen hileetan, proiektua garatzeko. ■ I.E.

"IX. OKELA ETA ARDAO EGUNA"

IURRETAN - 2012 MAIATZAK 19

F. J. Askondo



11:30-13:30

Umeentzako tailerrak

11:00-14:30

Bildots pintxoak eta Arabako Errioxako ardo dastaketa

Covila Upategiak (Lapuebla de Labarca) • Garcia de Olano Upategiak (Paganos) • Pascual Larrieta Upategiak (Samaniego) • Luis Angel Casado Manzanos Upategiak (Lapuebla de Labarca) • Gil Berzal Upategiak (Guardia) • Vallobera Upategiak (Guardia) • Pérez Irazu Upategiak (Elvillar/Bilan) • Pavoni Upategiak (Lapuebla de Labarca) • Señorío de las Viñas (Laserna-Guardia)



BERRIZ

Antzerki Udalekuak eratuko dituzte lehenengoz

Berrizko gazteek udako aisialdia betetzeko eskaintza berri bat edukiko dute aurtun: Antzerki Udalekuak. Uztailearen 16tik 27ra bitartean egingo dituzte. Dagoeneko badago izena emateko aukera Gaztelekuan, 60 euroren truke. Ekainaren 3an itxiko dute epea.

Pagotxa kultur elkarrekin, Txintxaun kolektiboa eta Karrika antzerki taldea dabilza udaleku hauek antolatzen; udalaren laguntza ere badute. Pagotxak Gaztelekua kudeaketa daroa, eta hango gazteen interesa kontuan hartuta bultzatu dute egitasmoa. Izan ere, gazteek antzerki talde bat sortu dute.

Pagotxa, Txintxaun eta Karrika dabilza antolatzen; udalaren laguntza ere badute

Herriko gazteak antzerki munduan hasteko modu bat izango da. Antzerkiagaz lotutako jolasak egingo dituzte, esaterako. Eszenografia, argiztapena eta soinua ere landuko dituztela azaldu dute arduradunek. ■ M. O.

Orlan Isoird: "Herriko ondare dira leku-izenak"

Ikerketa toponimikoa onartu du udalbatzarrak, eta herritarrei azalduko diete auzo-batzarretan

Amaitu dute leku-izenen azterketa Berrizen. Udalbatzarrak behin-behinean onartu du, eta datozen hogeita egunetan azalpen nahiz alegazioetarako tartea zabalduko dute. Auzo-batzarrak egingo dituzte, eta udal txekoa harrera-gelan auzuneetako mapak ipiniko dituzte ikusgai, baserri eta eremuen izenekin.

Udaletxeko harrera-gelan auzuneetako mapak ipiniko dituzte ikusgai

2008an hasi zuten ikerketa toponimikoa. Beka baten bidez, behargin bik egin dute gaur arteko lana. Lehenengo, artxiboetan egin zituzten kontsultak. Auzoetara hurreratu eta ahozko bilketa burutu zuten gero. Jasotako informazioa fitxa berezietan landu zuten eta azkenik mapetan koka-


tu zituzten leku-izenak. Prozesua Euskaltzaindiak jarraitu du.

Orlan Isoird alkateak ikerketaren garrantziaz egin du berba. "Leku-izen edo toponimoak herriko ondare dira". Egungo izenak aztertu eta beharrezko balitz aldatzea izan dute helburu. Baina eraikin berriek ere izenak behar dituztela eta, horientzako irizpideak ere ezarri gura izan dituzte.

Norabideak ere argitu

Ikerketa behin betiko onartzean, auzoetako sarreretan panel informatiboak ipiniko dituzte. Bertan, baserrien izenak eta zenbakiak kokatu dituzte. Panelen bidez, gainera, norabideak ere argitu dituzte. Diotenez, anbulantziek edo suhiltzaileek orientatzeko arazoak eduki dituzte sarritan.

Bestalde, mapa toponimikoaren 5.000 eskuorri banatuko dituzte herrian, Isoirdek azaldu duenez. ■ M. Onandia



Baserri eta auzoen informazioa ipiniko dute paneletan.

ABADIÑO

Jai egitarau "herrikoia" eskainiko dute Zelaietako San Trokazetan

Iaz berreskuratu zuten 'Maleta siku' bazkari herrikoian elkartuko dira bihar

Bihar hasi eta maiatzaren 20ra arte ospatuko dituzte San Trokaz jaiak Zelaietan. Aurtengo jaiak "are herrikoia" izango direla adierazi dute antolatzaileek. Udalak eta Zelaietako jai batzordeak antolatu dute jai-egitaraua.

Maleta siku bazkari herrikoia egingo dute jaien lehenengo egunetan, bihar. Iaz berreskuratu zuten ohitura hori: janaria etxetik eramango du parte-hartzaile bakoitzak, eta baserriar jantzita joatera animatu dute antolatzaileek.

Aurrekontuaren %20 urtean zehar beste ekitaldi batzuk antolatzeko gordeko dute

Maiatzaren 19an burutuko duten erlojupeko lasterketa da aurtengo San Trokaz jaietako berrietasunetako bat: hilerritik Gaztelu tontorrerainoko ibilbidea burutuko dute parte hartzaileek.

Bestalde, jaietarako gordetako aurrekontuaren %20 urtean

zehar beste ekitaldi batzuk antolatzeko gordeko du Jai Batzordeak. "Ekitaldi garestiak alboratu eta kostu gutxiko jarduerak herrikoia" gura izan dituzte bultzatu. Ohar batean eskertu du Jose Luis Navarro alkateak Jai Batzordeak egin duen "lan handia".

Musika zaleentzako askotariko eskaintza egongo da: Mikel Markez, Erramun Martikorena, Segismundo Toxicomano, Namek Planet eta Gozategik jardungo dute, besteak beste. ■ I. E.

MAÑARIA

Euskara klaseen %80 finantzatu du udalak

Euskaraz gainera, kirol eremuko ikastaroak diruz laguntzea ere onartu dute ordenantza berriagaz

Euskara ikasteagatik eta kirola praktikatzeagatik ematen dituen diru-laguntzak aldatu ditu udalak. Ordenantza berri du, "Mañariko biztanleen artean euskara ikasteko zein kirola egiteko grina pizteko". Orain arte, euskaltegiatiko

Euskaltegiatiko eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleek %30eko laguntza zeukaten

eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara ikasleek %30eko diru-laguntza zeukaten, eta hemendik aurrera %80koa edukiko dute. Barneketan zebiltzanek ez zuten ekarpenik jasotzen, eta arautegi berriari esker, klaseen %30 ordaintzeko laguntza edukiko dute.

Kirol ikastaroen kasuan, lehen, Durango Kiroletan izena emanda zutenek jaso zezaketen laguntza. Orain, Durangaldeko gainontzeko udal kirolguneetan dabilzanek ere eskubide bera edukiko dute.

Klaseen asistentzia %80koa izan beharko da gutxienez. ■ M. O.

Oporrak herrian bertan eta euskaraz, udalekuetan

Maiatzaren 25era arte eman ahal da izena udalak antolatutako udalekuetan parte hartzeko

Uztailearen 2tik 13ra burutuko dituzte Abadiñoko Udalak herriko umeentzako antolatu dituen udalekuak. Hiru eta hamabi urte arteko umeek eman ahal dute izena udaleku horietan, maiatzaren 25era arte.

Hiru eta hamabi urte arteko umeek eman ahal dute izena udalekuetan

Argi Abad zinegotziak esan duenez, udako oporraldia herrian bertan eta euskaraz gozatzeko aukera eskaintzeko antolatu dituzte udalekuak. Aurtun, 220 umerentzako lekua eskainiko dute uztaileko udalekuetan.

Goizez, 09:30etatik 13:30era, herriko eskoletan izango dira udalekuak. Informazio gehiago, ekainaren 21ean, Errota kultur etxean egingo duten batzarrean eskainiko dute. ■ I. E.

IZURTZA

Lekeitiora irteera antolatu du jubilatuen elkarteak

Jubilatu elkarteak Lekeitiorako egunpasa antolatu du ekainaren 2ko zapatarako. Autobusa goizeko 10:00etan irtengo da aparkalekutik. Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, maiatzaren 27a baino lehenago eman behar da izena tabernan. Bazkide direnen-

tzako 20 euro balio du irteerak; jubilatuen elkarteko bazkide ez direnentzako prezioa, oster, 25 euro izango da.

Ondarroan geldialdia

Goizeko lehenengo geraldia Ondarroan egingo dute eta bertan egongo dira eguerdira arte. Osteen, autobusa hartu eta Lekeitiora joango dira eta bertan bazkalduko dute. Makailaoa eta marmitakoa daude menuan beste jaki batzuen artean. Arratsaldea libre utziko dute Lekeitioko portua eta kaleak bisitatzeko. ■ J. D.

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Bezera izatearen lasaitasunarekin

- Sustapenaren finantzaketa ez delako arazo bat.
- Bezeraoren finantzaketa idatziz bermatzen delako.
- Eskatutako finantzaketen %90 ematen delako.
- 1. faseko emaitza ezagutzen duzulako.
- Obra aurrera doa 2013ko abenduan zure etxebizitza eduki dezazun.
- Sinatzen duzuna ezagutzen duzulako.
- BEZEROA zarelako, bestelako trabarik gabe.

%100 arte finantzatutako erosketa:

Sabadell Guipuzcoano

B S



2 log. 199.000€-tik aurrera + BEZ

Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D. an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

MALLABIA

Bertsolari onenak ariko dira Hamabostaldiaren lehenengo asteburuan

Egaña, Zubeldia, Arzallus, Lujanbio, Iturriaga eta Ugartetxea bertsolariak igoko dira oholtza gainera

Mallabiko elkarteek udalagaz batera maiazerako antolatu duten Kultur Hamabostaldia ekitaldiz beteta dator. Gaur arratsalderako kantu poteoa antolatu du Mendibil Abesbatzak. Gauean, Bikustik taldeak Udaberri Kontzertua eskainiko du Herriko tabernan. Zapatuan, berriz, nesken saskibaloi txapelketa antolatuko dute goizean. Arratsaldean, truke azokak beteko du plaza.

Domekan, Punterengo bertsolariak ariko dira pilotalekuan, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, eta Unai Iturriagagaz batera lker Zubeldia eta Arkaitz Ugartetxea mallabiarra ere ariko dira, Asier Ibaibarriagagai-jartzai-learen aginduetara.

Orraitio euskara elkarteak bertso saioaz gainera, Amaia Diaz de Monasterio dietistak maiatzaren 18an eskainiko duen hitzaldia prestatu du. Dieta orekatua, osa-

Bikustik taldeak Udaberri Kontzertua eskainiko du gaur Mallabiko Herriko Tabernan

Amaia Diaz de Monasterio dietistak dieta orekatuaren gakoak azalduko ditu

suntsua, merkea eta aspertzen ez duena zelan egin azalduko du dietistak: "Ez da ezinezkoa ganoraz jatea, hau da, dieta orekatua jarraitzea gure bizimoduko ohiturak eta premiak aldatu barik".

Kirola ere bai

Kirolak ere izango du bere lekua. Pilotari ugari ezagutzera emateko balio duen Biharko Izarrak IX. txapelketa antolatu dute eguenerako: 21:30ean, udal pilotalekuan. ■ J. G.

DURANGALDEA

Ibaizabaleko kutsadura iturriak aztertuko dituzte

Ur saneamendu arduradunek diotenez, azken urteetako lanek egoera ekologikoa hobetu dute

Ibaizabal ibaiaren kutsadura iturriak saihestu eta neurriak antolatu gura dituzte. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Uraren Euskal Agentziak hitzarmena sinatu dute, eta datozen hamabi hilabeteetan azterketa bat egitea onartu dute. Azken urteetan egindako lanaren

ondorioz, egoera ekologikoa hobetu dela diote: "Inguru hori orain dela urte batzuk pentsaezinak ziren ekintzetarako erabiltzeko aukera dago".

Hala ere, ingurumen-helburuak lortzea oraindik gaitza dela adierazi dute. Horregatik, saneamendu sistemak ikertuko dituzte, isurketen jatorria aurkitu eta, gero, hobetzeko ekintzak zehaztuko dituzte. Elorrioko estazio araztailetik Bilborainoko eremua hartuko dute kontuan. ■ M. O.

Elorrioko estazio araztailetik Bilborainoko eremua hartuko dute kontuan

IURRETA

Abadetxea konpontzeko lanak hasi dituzte asteon

"Parrokiako ondare izanik", eliztarrek egingo diote aurre inbertsioari



1999tik 2006ra bitartean lurretako gaztetxea izan da Abadetxea. Erre egin zen 2006an.

Hasi dituzte Abadetxea berritzeko lanak. Otsailan eman zion Bilboko gotzaitegiari obra baimena udalak. Berritze egitasmoan, aurrealdea eta burdinezko balkoiak ere jaso dituzte, barne-egitura eta teilatuaz gain. Hormigoizko eraikina ere bota behar du gotzaitegiak. Lanak amaitzean, indar gabe utziko du udalak abiatutako hondamen espedientea.

Aurrekontua 350.000 eurokoa da. Gotzaitegiak azaldu duenez, "parrokiako ondare izanik", lanei eliztarrek egingo diote aurre, gotzaitegiaren laguntza edukiko

Aurrealdea, barne-egitura eta teilatua, sanmigeletarako amaitzea aurreikusi dute

duten arren. Aurrealdea, barne-egitura eta teilatua, sanmigeletarako amaitzea aurreikusi dute.

1999an gazte asanbladak okupatu eta gero gaztetxea izan zen abadetxea, 2006an erre zen arte. Harrezkero, hutsik egon da. Gotzaitegiagaz eraikina eskuratzeko trukea negoziatu zuen udalak 2007an. Erosten ere saiatu zen, baina ez zuen akordioarik lortu.

2010ean, behin betiko baztertu zuen eraikina erosi eta berriztea, ez zuelako erabilgarri ikusten.

Urriari gotzaitegiak teilatura mugatzen zen egitasmoa aurkeztu zuen, hondamen-espediente saihestu guran. Udalak, baina, birgaitze integrala eskatu zion, oniritzia emateko.

Erabilera, zehaztu barik

Abadetxeari emango zaion erabilera ez du argitu gotzaitegiak, "parrokiako premiei" erantzungo diela esan arren. Eraikina mantenduko delako, "pozik" azaldu da Iñaki Totorikaguena alkatea. ■ A. B.

OTXANDIO

Palestinari buruzko argazki erakusketa bolalekuan

Herrialde arabiarren egoera bertatik ezagutu dutenen argazkiak erakutsiko dituzte gaur hasita

Orain urte bi Biladi Hadi brigada Palestinan izan zen, Euskal Herriko idazleekin, kazetariekin, bertsolariekin batera, herrialde arabiarreko errealitatea bertatik bertara ezagutu eta jasotzeko.

Harrezkero, hainbat herritan aurkeztu dituzte orduko materialagaz osatutako liburua eta testuen bidez jantzitako argazki erakusketa. Asteburu honetan eta hurrengoan Otxandioko bolalekuko are-

toan egongo da ikusgai erakusketa hori. Barikuetan 10:00etatik 21:00etara irekiko dute; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Domekan, berriz, arinago zarratuko dute erakusketa arratsaldean, 20:00etan.

Biladi Hadi ekimenaren baitan sortutako liburuaren aurkezpena ere egingo dute domeka honetan, 19:00etan. Zuzeneko musikaren laguntzagaz ariko dira. Besteak beste, Jerusalem, Hebron eta Aidako errefuxiatu gunetan egon ziren. ■ J. D.

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

HONDA
STIHL
PASQUALI
SAME
BCS
CARON
VIKING

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRÉSNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03



Durungaldean labor

Krisi sasoian ideiak ez direla falta erakutsiko dute Maristek

Durangoko Maristak eta Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxeek antolatutako ekimen baten bidez, krisi garaian, gazteek euren lanaren bitartez, "herritarrek harritzeko gaitasuna" daukatela erakutsi gura dute. Zapatu honetan, 10:00etatik 14:00etara, Andra Mariko elizpean egongo dira. Esaterako, piezen diseinurako planoak eta euren 3Drako eraldaketa nola egiten den erakutsiko dute.

Ikerketa, ondarearen aurka delitua egin den argitzeko

Apirilaren 13an Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren kontrako pintadak agertu ziren Elorrioren. Horietako asko eraikin historikoetan egin zituzten. Ertzaintzak Bizkaiko Ingurugiro eta Hirigintzako Fiskaltzari jakinarazi dio, eta ondare historikoaren kontrako deliturik ote dagoen aztertuko dute fiskalek. Udalarari 2.500 euroko kostua eragin zion pintada horiek garbitzeak.



Izen-ematea 'Uda Topera' udalekuetan

Hiru urtetik hamalau urtera arteko neska-mutilei zuzenduta, *Uda Topera* udalekuak antolatu ditu aurten ere Durangoko Udalak, eta maiatzaren 16ra arte eman daiteke izena: informazioa@durango-udala.net helbidean. Ekainaren 25etik uztailaren 6ra bitartean izango dira.

ELORRIO

Nanukek soldatak jaitsi ez eta gelditu egin dira protestak

Enpresak %5,5 jaitsi gura zituen soldatak, baina negoziazioa zabaldu dute

Transportes Nanuk enpresako zuzendaritzak %5,5 jaitsi gura zituen soldatak. Horren aurrean, mobilizatzeko erabakia

Atzo soldata jaitzieraren eskaera atzera bota zuen Nanuk enpresak

hartu zuten beharginak. Joan zen domekan 120 lagun batu ziren kontzentrazioan, eta aurrera begira ere protesta eta lanuzteak dei-

tuta zituzten. Baina, atzo soldata jaitziera atzera bota zuen enpresak, eta langileek bertan behera utzi zituzten mobilizazioak. LABek azaldu du negoziazio fasea zabaldu dutela ekainera arte. Beharginen gehiengoak martxoan kobratu ez zuen aparteko ordainsaria ere eztabaidagai izango da. 110 behargin inguru daude Transportes Nanuk enpresan.

95 elorriar hasi dira erabiltzen auzoetarako taxi zerbitzu berria

Udalak otsailean ipini zuen martxan auzoak eta herrigunea lotzeko taxi zerbitzua. Hiru hilabete pasata, 95 herritarrek osatzen dute erabiltzaile kopurua. Horretarako, txartela eskatu behar izan dute udaletxean. Otsailean eta martxoan, 166 bidaia egin dituzte guztien artean. Ana Otadui alkatearen ustez, datu horiek oso positiboak dira. "Orain arteko harrera ona izaten jarraitzea espero dut".

Erabiltzaile gehienak nagusiak dira. Bidaieen zergatia edo helburuak ere zehaztu dituzte: %39 aisialdirako, %18 erreka-duak egiteko, %14 merkatura joateko eta %11 osasun etxera joateko. Eskola edota jubilatuen egoitza ere badaude helmugan artean. Leiz Miñotakoek erabili dute gehien zerbitzua: bidaia guztien %34 egin dute. ■ M. O.

Nanukeko enpresa batzordeak haserre hartu zuen soldata jaitzieraren neurria

"Gestio txarra"

Enpresa batzordeak haserre hartu zuen enpresari proposatutako soldata jaitzieraren neurria: "Azken bi urteotan, Nanukeko jabeek enpresa bi erosi dituzte. Inbertsioetarako dirua badaukate, baina soldatetarako ez?". Banketxeek enpresari kreditu txikiagoa eman eta errazena euri kentzea zela diote. "Gu ez gara euren gestio txar edo erabaki okerreren errudun". ■ M. Onaindia



Domekan, soldaten jaitzieraren aurka egindako protesta, Herriko plazan.

71 postu, bigarren eskuko produktuen merkaturan

Herritarren Merkatu Txikia. Horrela izendatu dute domekan Elorrioren egingo duten azoka. Antolatzailerak berbetan, ez da enpresa eta artisauen saltoki bat izango. Eredu anglosaxoiari jarraituko diote: etxean dauzkaten eta erabiltzen ez dituzten gauzak ipiniko

dituzte mahaietan. Produktuen arteko trukea eta salmenta onartuko dituzte merkaturan. 71 herritarrek parte hartuko dute.

Hobetzeko asmoz

Merkatu honen lehenengo edizioa izango da domekakoa. Antolatzailerak diotenez, orain arteko erantzuna ikusita ekimenak arrakasta eduki du. Datorren urtean ere "hobeto eta handiago" egiteko asmoa agertu dute.

Birziklapena bultzatu eta berrerrabilpen ohituretan eragin gura dute. ■ M. O.

"Ez gaitu krisitik aterako, baina pauso bat da"

Bilduk araudi bat aurkeztu du, premia dutenen zergak eta zerbitzuak finantzatzeko laguntzeko

Batetik, ura, zaborra eta estolde-riaren zergetan. Bestetik, kiroldegia, ludoteka, multikirola eta Uztaila Oparo zerbitzuetan. Bilduk aurkeztutako ordenantzaren helburua, premia duten herritarrei udal zergak eta zerbitzuak

Krisian dauden enpresetako beharginak ere hartu dituzte kontuan ordenantzan

ordaintzeko diru-laguntza ematea da. "Jakin badakigu proposamen honek ez gaituela krisitik aterako, baina pauso bat da". Familiako kide kopuruaren eta diru-sarreraren arabera banatuko dituzte laguntzak: gastuen %60, %80 eta %100era artekoak.

Krisian dauden enpresetako beharginak ere hartu dituzte kontuan ordenantzan, langabezian egon ez arren. Baldintza guztiak betetzen badituzte, udal zerga eta zerbitzuen ordainketa atzeratu ahal izango dute, beraien egoera finkatu arte. ■ M. O.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

R.P.S. 21400

A. Urreta pedagogoa

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podinara
Urreta
Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

BERBAZ>

“Historiari buruz gutxi dakiten pertsonak gauzak ‘oso argi’ izan ohi dituzte”

Pentsamendu politikoen historian sakondu eta dibulgazio liburuak idazten ditu Iñigo Bolinaga elorriarrak.



Iñigo Bolinaga •

▪ Elorrio, 1974

▪ Historialaria da. Dibulgazio lanak idatzi ditu, artikulak eta liburuak. Irratian ere kolaborazioak egiten ditu.

Ez beltza, ez zuria. Historiako ideologia eta pertsonailetan gris tonalitate asko daudela dio Iñigo Bolinaga historialaria. Alde guztien ikuspuntua ulertzen saiatzen dela azaldu du elorriarrak. Faxismoa eta marxismoa lako ideologietan sakondu du.

Faxismoa, sozialismo utopikoa, Gerra Zibila, Errusiako Iraultza, Nafarroako konkista... Oso gai desberdinak landu dituzu liburuetan.

Bai, ideologia politiko asko ukitu ditut, beti interesatu izan zaizkidalako. Interesak mugitzen nau. Niri historia izugarri gustatzen zait, eta orduan, ez daukat justifikatu beharrik esanaz ‘garrantzitsua da gizartearen garapenerako’. Beste barik, gustatu egiten zait, eta dibulgatu gura dut.

Azken liburua, ‘El Testamento’, Nafarroko konkistari buruzko nobela da.

Ikuspuntu berri bat ekarri gura nuen; 1512tik ia mende batera Espainiako errege-erreginek zeukatena. Ez zeukaten kontzientzia garbi. 1598an pertsona jakitunak batu zituzten batza-

rean, Nafarroa Espainiako erresumarena zela legitimatzeko. Batzar horren akta kontserbatzen da, eta horretatik abiatuta batzar hori teatralizatu egin dut. Gaztelak eman zituen justifikazioak ikus daitezke. Zer pentsa-

tzen zuten irudikatu gura izan dut. Ez da erraza izaten. Gaur egun zer pentsatzen du Raxoik? Diskurtso ofizial bat dauka, baina benetan zer pentsatzen duen bere emazteak baino ez du jakingo.

Kontatzen duen pertsonaren araber, historia aldatu egiten da. Inpartziala izaten ahalegintzen zara?

Ez dut guztiz neutrala izan gura, baina bertsio guztiak eman gura izaten ditut. Gerra Zibilaren gaia lantzerakoan, esaterako, eskumari egurra ematen diot, baina ezkerari ere bai. Ikuspegi denak eman eta ulertzen ahalegintzen

naiz, besteen lekuan ipintzen. Konpartitu ez arren, nik oso ondo ulertu ahal dut Hitlerrek zer pentsatzen zuen. Historiako ‘txarrak’ izan diren kasuan batez ere, euren ikuspegia ulertzen saiatzen naiz. Aberasgarria

“Historiako ‘txarrak’ izan diren ikuspegia ulertzen saiatzen naiz. Aberasgarria dela uste dut”

dela uste dut. Historia bizitza bezalakoa da: ez da ez zuria ez beltza, gris eskala bat dago. Ez daude onak eta txarrak, indio eta bakeroen pelikuletan moduan.

Historia laburtu eta liburuan ipintzea gaitza izango da...

Nik uste dut errazagoa dela liburu aspergarri bat idaztea gauza xume bat idaztea baino. Lehen liburuagaz, faxismoaren gaz pasatu zitzaidan hasieran itzeleko liburuak idatzi nuela pentsatu nuela. Nire bikoteari eman, eta bera ez zen ezertaz enteratzen. Askok moldatu eta orraztu behar izan nuen. Gaitza da laburtzea, gauzak aukeratu behar dituzula-

ko. Adibidez, protagonistetatik erreferentziatzeko gutxi batzuk aukeratzen ditut.

Zein libururekin geratu zara gutoren?

La gran utopia-gaz. Sozialismo utopikoaren gaineko liburuak da, ia nobela moduan idatzitakoa. Pertsonaia horiei buruz berba egin gura nuen, historian ahaztuta geratzen direlako maiz. Sozialismoa Marx eta Engelsen ideologiatik datorrela esaten da, eta sozialismo utopikoa mespretxuz tratatzen zuten. Baina ideologia horrek eduki du bere

garrantzia; Robert Owen, adibidez, kooperatibismoaren sortzaileetako bat izan zen, eta sozialista utopikoa izan zen. Historian ahaztuta geratu den jendea da. Mundu hobea baten alde lan handia egin zuten, ondo irten ez arren, agian benetan utopikoak zirelako.

Historiaren inguruan mito ugari egoten dira. Ondo irakasten da iraganean gertatutakoa?


Ez, ez da modurik egokiena. Etiketekin funtzionatzen dugu gauza guztietarako, kontzeptuak sinplifikatzeko, eta lehen pausua emateko ondo dago, baina sakontzen hasiz gero... Historiari buruz gutxi dakiten pertsonak gauzak ‘oso argi’ izan ohi dituzte. Baina sakontzen hasiz gero, konturatzen zara gauzak ez direla uste bezain xumeak. Ahalegindu behar gara jendeak oinarritzko ideia bat eduki dezan, ahalik eta etiketa gutxienekin.

Gaur egungo egoerak beste momentu historikoren baten antza al du?

Nik uste dut ezin dela konparaziorik egin. Esaten dute zikloak egoten direla, historia errepikatu egiten dela; ez nago horrekin ados. Katedratiko handiek baietz esaten dute, eta ez diet eztabaidatuko, baina nire iritziz ez dago ziklorik. Nire ustez, ezin da aurrekusi etorkizunean zer etorriko den iraganean gertatutakoak aztertuta. Ulertu dezakezue orainaldia, iraganari buruz daukazun ezagutzarekin. Orainaldira egokitu zaitezke eta beste mota bateko etorkizun bat eraiki historia ezagututa. Baina etorkizunean zer gertatuko den jakitea? Ez, ez dut uste hori egin daitekeenik. ■ A. Ugaldé

“Errazagoa da liburu aspergarri bat idaztea, gauza xume bat egitea baino”

“Ezin da etorkizuna aurrekusi iraganean gertatutakoa aztertuta”



INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

*Lanerako
Langile
Trebatuak*

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industriala.

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-Lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.

ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Zati komuna.

ZIKLO GUZTIAK EUSKERAZ ETA GAZTELERAZ

DATAK

Aurrematrikula: maiatzaren **28**tik ekainaren **8**ra

Matrikula: uztailaren **5**etik **11**ra

Tel.: 94 673 02 51

e-mail: info@fpzornotza.com

www.fpzornotza.com



@anbotokultura

KULTURA

JON MAIA > ZUZENDARIA

Autodeterminazioaz aritu zara. Nazioen Mundua ekimenaren ibilbidea da ardatz nagusia. Izan ere, adierazi gura duguna da, jende arruntak bere esku duela bere etorkizuna, eta posible dela desberdinen artean adostasunetara iristea. Dokumentalean esaten den bezala, autodeterminazioa gai garrantzitsuegia da politikoen esku uzteko, eta gure ardura da etorkizunaren jabe izatea eta zer izan nahi dugun erabakitzea. Herritarrok sinesten badugu gai garela inoren zain egin gabe aurrera egiteko, ez dago hori geldituko duenik. Ikuslea dokumentalaren protagonista bihurtzen dugu.

“Autodeterminazioa gai garrantzitsuegia da politikoen esku uzteko”

Donostiako Giza Eskubideen Zinema jaialdian erakutsizenuen lehenengoz. Zelakoa izan zen? Bezperatan oso urduri nengoen. Egun osoa txikle berdinean pasatzen duzuneko zen inpresioa: dagoeneko zer zapore daukan ere ez duzu jakiten. Egin duzun pelikula hori zelakoa den, nozioa galdu egiten duzu.

Zelan erantzun zuen lehenengo emanaldi haietan jendeak? Ikusi genuen jendeak barre egin behar zen momentuetan barre egiten zuela, eta hunkitu behar zenean hunkitu egiten zela, eta izugarrizko lasaitua hartu nuen. Asteazkenean berriro bete zen Victoria Eugenia, eta oraindik eta

“Etorkizuna gure esku dagoela sinestarazi dit dokumentalak”

Durangoko Plateruena kafe antzokian emango dute, gaur, 22:00etan, Jon Maia bertsolariak zuzendu duen dokumentala: *Gazta zati bat*. Atzo, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetakoko zinema aretoetan estreinatuta zuten



Jon Maia zuzendaria (ezkerrean), dokumentalaren grabazioko une batean.

erreakzio beroagoa izan zen ikuslego, esan dezagun, normalarekin. Ez geneukan erronka erraza, gai politiko batekin, herri txiki bateko historia batekin artea egiteko, eta ikusi dugu egin dugunak funtzionatzen duela. Estilo aldetik ere arriskatu gara, eta ikusi dugu oso ondo hartu dela.

Estiloa aipatu duzu. Zer ezagarrri nahi izan dituzu lortu? Oso dokumental freskoa da. Gertakizunak izan diren momentuan grabaturikoak dira irudi gehienak. Saiatu gara oso benetakoa eta hurbila izaten: konplexurik gabe sartu ditugu etxeko bideo-kamerarekin Nazioen Munduko jen-

deak azken zortzi urteetan grabatu izan dituen gauzak. Denak du *making-off* itxura. Dokumental estandar batean hasieratik deskartatuko lirartekeen eszenak dira protagonismoa hartu dutenak. Esango nuke baita, oso egiazaleak izan garela: gauzak izan diren bezala kontatzen saiatu gara.

Bidaiatik ere badauka dokumentalak.

Euskal Herria eta Eskozia dira dokumentalaren bi paisajeak. Idiazabalgo Nazioen Mundua taldearekin Eskoziara egin genuen bidaiak batekin hasi zen dena. Beti fijasatu gara beste herri batzuetan, eta Eskoziak isil-isilik bere bidea egin du, eta demokrazia heldu baten eredu bezala ageri zaigu. Inork hemen aro aldaketa bat zeterrela ikusten ez zuenean, desberdin pentsatzen zuen jendearen artean autodeterminazio eskubidea lantzen hasi ziren Idiazabalen.

Euskal Herriko egoera politikoan emandako aurrerapausoek eraginda, hainbat aldiz aldatu behar izan duzue gidoia, ezta?

Bai, ez genuen ikusten noiz amaitu genezakeen. Gauzak arrapalada batean aldatzen hasi ziren: Ezker abertzalearen legalizazioa, ETAren su-etena, Aieteko nazioarteko goi-bilera... Luzatzen-luzatzen joan behar izan genuen.

Zelako esperientzia izan da?

Sakona. Etorkizuna gure esku dagoela sinesteko aukera eman dit dokumentalak: ez gara bulego batean edo ezkutuko bilera batzuetan zer erabakiko den zain egon behar. Oso barrutik bizi dut hemengo egoera politiko eta benetan suerte handia izan da lan hau egin ahal izatea. ■ I. Esteban

Euskal Herriaren eta Eskoziaren etorkizunari esperantzaz begira

Aurretik zuzendu zituen *Bidaia intimoak* eta *Apaizac* obetolanetan dokumentala nondik nora joango zen argi zeukala dio Jon

Maiak: “Garbi neukan zer nahi nuen kontatu, eta nola; grabatzen hasi aurretik nahiko definituta neuzkan gauzak”. Honetan, aldiz,

ez nuen garbi ikusten nola planteatu. *Gazta zati bat* grabatzen hasi eta lasterrera, gainera, “Eskozian eta Euskal Herrian, bi

naizien norabidea alda zezaketen gauzak hasi ziren gertatzen, eta horrek ere eragina izan zuen sormen prozesuan.” Aldaketa horiek lehen lerrotik jarraitzeko aukera eskaini dio dokumentalak Jon Maia bertsolariari.

Hiru urtean burutu dute dokumentala, eta umoreari ere lekua egiten saiatu dira, Jon Maiaren berbetan. “Ez da erraza horre-

“Hasieratik eduki dut argi ikuspuntu positibo bat eman behar nuela”

lako gai batekin tarteka barre egitea, baina nik uste euskaldunok oso jende alaiak gara, eta hasieratik eduki dut argi ikuspuntu positibo bat eman behar nuela: sufrimenduan oinarritu gabe, etorkizunari esperantzaz begira jartzen gaituena”.



ANTZERKIA >



2010ean Espainiako saria jaso zuen obra Durangaldeko hiru aretotan antzeztuko dute

Zornotza, Elorrio eta Durangoko antzokiek elkarlanean ekarri dute La Zaranda taldearen 'Nadie lo quiere creer'

Espainiako antzerkigintzaren 2010eko sari nazionala jaso zuen *Nadie lo quiere creer*. *La patria de los espectros* antzezlanak ikusteko aukera egon da Zornotzan, eta egongo da Durangon eta Elorrian, datozen egunetan.

Izan ere, Zornotza Aretoan atzo eskaini zuen La Zaranda taldeak obra. Elorrioko Arriolan gaur eskainiko dute, eta Durangoko San Agustin kulturgunean bihar izango dira. Bata zein bestea, 20:00etarako programatu dute antolatzaileek.

“Iraganak elkarren kontra egitera daramatzen hiru lagun dira lanaren protagonistak”

Hiru kulturgunek elkartzen dituen 3K taldeak gonbidatu du La Zaranda Andaluziako taldea Durangaldera. “Iraganak elkarren kontra egitera daramatzen hiru lagun dira lanaren protagonistak, gaixota-

sunak zatitu eta ahulduta dituztenak”. Horrela laburbiltzen dute obra, antzezlanaren aurkezpen orrian.

Cadizen sortutako taldea da La Zaranda. Hiru hamarkada daroatzate antzerkigintza independentearen arloan lanean, eta Espainiatik kanpo ere harrera beroa izan dute euren sorkuntzek.

Ikuslegoa gogoeta egitera bultzatu guran eta ezarritako formak iraultzeko helburuagaz jardun izan dute La Zaranda konpainiakok urte hauetan guztietan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz Berbaroko kidea



Euforia

Garai latzak igarotzen ari garela bista-koa da, estu eta larri dabilta zenbaitzuk. Familia-ekonomiaren kalterako politikak ezarri dizkigute, argi dago, eta *austeritate* berba hotza bolo-bolo dabil.

Uste dut euskaldunok ez garela arazoan aurrean, burua lur-zuloan erraz sartzen duen horietakoak. Ez horixe! Kontua da, egoeraren larriaz, edozeri heltzen diogula animoa eta gogoia altxatzeko.

Zorionekoak gara, zuri-gorriak ekarri digu eta salbazioa. Sentimendu sakonen eragile izateaz gain, entusiasmo ere pizten ei du... Asteon gertatu denari erreparatzea baino ez dago. Paradisu edo infernu izan zitekeen Bukarestera begira egon gara, eta hiria hona ekarri guran, den-dena zuri-gorri jantzi dugu, udalaxe, komunikabide, enpresa, etxe... Partida ikusteko pantaila erraldoiak jarri dizkigute, jaialdiak antolatuta, zoramena...

Sekula ez nuen esango, egunen batean, futbolaren gaineko lerroak idatziko nituenik. Pentsatzen hasita nago sozializatzeko derrigorra dela futbol zale izatea, baina ez nahikoa, Athletic zalea ere izan behar da gurean.

Bitxia da, Atletico Madril taldea Espainiako hiriburura ikastera joandako bizkaitarrek sortu zuten XX. mende hasieran. Derbia izan dugu, beraz, eta batak zein besteak irabazi, zuri-gorria garaile. Manzanaresetik barik, ordea, hobe Gabarra Bilboko itsasadarretik gorako ur uherretan kulunkan ikusten badugu, garaipenak eragindako emozioz beterik. Ahaztezina izango litzateke! 1983an egoera ekonomikoa ere kaskarraren eta, hara non, zuri-gorriek Espainiako liga irabazteak herritarren animoak goratu zituen, eta ondorengo ospakizunak irudi gogoangarriak utzi zizkigun.

Hala ere, bere handian, Gabarrarenak baino zirraragarriagoak eskaini zizkiguten, duela zenbait denboraldi, gure eskualdeak eman duen jokalaritza itzel bat galtzontzilo hutsetan ageri zenean. Nik horiek gurago. Barkatuko didazu atrebentzia Koi. Eta zuek ere, Athletic zale amorratuok, barkatuko didazue, ez dut negarrik egin, ez pozez ez tristeziatz.

LITERATURA >

la 400 idazlan jaso dituzte Iurretako Literatur Lehiaketan

Gotzon Herrosillaren 'Deabrua dut iheskide' saritu dute helduen sailean



Joan zen barikuan, Iurretako Ibarretxe kultur etxean banatu zituzten Iurretako Literatur Lehiaketako sariak. Kristina Mardarase epaimahaikideak aurkeztu zuen ekitaldia. Aurkezpenean, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu zuenez, ia 400 idazlan jaso dituzte aurtengo lehiaketan.

Durangaldeko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako, DBHko, eta Batxilergoko ikasleek parte hartu dute Iurretako udalak antolaturiko lehiaketan. Ipuinen eta bertso idatzien atalera aurkeztu dituzte lanak zazpi eta hamazazpi urte arteko Durangaldeko idazle gazteek.

Helduen sailean, Barakaldoko Gotzon Herrosillak aurkezturiko *Deabrua dut iheskide* ipuina saritu du epaimahaikak. Bestalde, Julian Albistur eta Iñigo Legorburu errenteriarren lanak nabarmendu dituzte bertso idatzien helduen sailean.

Urtero legez, Iurretako udalak argitara eman duen liburuan jaso dituzte sarituriko lan guztiak. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 11 20:00etan
GAZTA ZATI BAT
Gonbidatua: Jon Maia.
DOKUMENTALA. Sarrera: 5euro.

MAIATZAK 17 19:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA
Plateruenako anfiteatroan.

MAIATZAK 18 22:00etan
LOS DEL GAS
KONZERTUA. Sarrera: 8-10 euro

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

NADIE LO QUERIA CREER
La zaranda
2010eko espainiako teatro sari nazionala
Maiatzak 12 • 20:00

ARRATOITXO PINPIRINA
Glu Glu producciones
Maiatzak 13 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA>

Herriko konposatzaileen obrak eskainiko ditu bihar, 20:00etan, Ezkurdiko kioskoan Durangoko Bandak. Bartolome Ertzillaren 1890eko *La prensa*, eta Durangoko beste hainbat sortzaileen obrak inter-pretatuko dituzte.

Durangoko Bandaren zuzendariak izan ziren Victor de Olaeta eta Cristobal Marin, eta horien *Minué de los caballeritos de Azkoitia* eta *Parque de Ezkurdi* obrak ere joko dituzte. Era berean, Eusebio Bilbao Durangoko akordeonistaren *Capa y espada* ere eskainiko dute, Andres Granadosek bandarentzako moldatuta.

Hamabost musikarik osatzen zuten XX. mende hasieran banda

Andres Granadosek berak zuzenduko du musika banda. Hamar urterekin hasi zen Granados Durangoko bandan, eta Bilbokoan dihardu orain. Granadosek azaldu duenez, urte hasieran Bartolome Ertzillaren partitura bat aurkitu zuten musika eskolako artxiboan, eta horrela konturatu ziren Ezkurdiko kioskoa duela 110 urte eraiki zutela.

Musika banda bi zeuden Durangon XIX. mendean, bakoitza joera politiko batekoa. Grana-

Ezkurdiko kioskoak 110 urte bete dituela ospatuko dute

Durangoko musikarien piezak joko ditu Durangoko Bandak bihar, Ezkurdiko kioskoan eskainiko duen kontzertuan; Iñaki Uriarte arkitektoak berbaldia eskaini zuen egunean



dosek azaldu duenez, 1900ean elkartu egin ziren banda horiek biak, eta euren eskariz eraiki zuten 1902an kioskoa. Hamabost musikarik osatzen zuten XX. mende hasierako urte haietan Durangoko musika banda.

Banda bi zeuden XIX. mendean, bakoitza joera politiko batekoa

Hamazortzi urtekoak dira Durangoko Bandako kide gazteenak gaur egun, baina badago taldean 60 urte daramatzen musikari bat ere: Manuel Parada. Emakumeak dira Durangoko bandako 55 kideetako asko, orain.

Egitaraua

Bartolomé Ertzillaren *La prensa*

Víctor de Olaetaren *Minué de los caballeritos de Azkoitia*

Eusebio Bilbaoren *Capa y espada*

Cristobal Marín-en *Parque de Ezkurdi*

Tribute to Louis Armstrong

Bremengo musikariak

Film festival

Ezkurdiko kioskoaren 110. urteurrenoko lehenengo ekitaldia atzo izan zen: Iñaki Uriarte arkitekto bilbotarrak berbaldia eskaini zuen. Euskal Herriko musika kioskoen inguruko bere lana aurkeztu zuen Uriartek. ■ I. E.

ERAKUSKETA>

Gizakiaren ohiko galderak margoen bidez, Arte eta Historia Museoan

Gasteizko Berni Gonzalez eta Santurtziko Natalia Pedrero artisten litografia, 'collage' eta akrilikoagaz egindako lanak egongo dira Durangoko Museoan, maiatzaren 27ra arte

Izenburuak laburbiltzen du erakusketa zertaz den: *¿De dónde venimos? ¿Quiénes somos? ¿Adónde vamos?* Bi margolari gazteren lanak bildu dituzte: Berni Gonzalez de Zarate eta Natalia Pedrero Tejadaren obrak. Erakusketa eguaztenetik Durangoko Arte eta Historia Museoan dago bisitarien ztat, maiatzaren 17ra arte.

Gonzalez eta Pedrerok Weart proiektuan elkarlanean sortutako lanak jaso dituzte, besteak beste, Durangoko erakusketa honetan. Baina, artista bakoitzak bakarka egindako lanak ere badaude.

Artista bakoitzak bakarka egindako lanak ere badaude

Weart proiektuan elkarlanean sortutako lanak jaso dituzte

Arte Ederrak eta Arte sorkuntzako masterra ikasi zuen Berni Gonzalezek (Gasteiz, 1982). Gasteiztarrak oihala eta zura gainean akrilikoagaz egindako lanak, *collage*-akedo teknika mistoagaz egindako sorkuntzak, daude Durangoko Museoan ikusgai. Gainera, Gonzalezek *Por la madriguera abajo* serie koloretsua ere jaso dute Durangoko Museoan.

Natalia Pedreroren (Santurtzi, 1980) zuri-beltzeko hiru litografia-lan ere, maiatzaren 27 arte izango dira Durangoko Arte eta Historia Museoko erakusketan. ■ I. E.



BERBALDIAK>

Neolitikoa izango dute Arkeologia eta Historia jardunaldietan berbagai

Bi arlo horietako ikerlariak eta profesionalak gonbidatu dituzte jardunaldien barruko hiru hitzaldiak emateko

Besteak beste, animaliak lehenengo etxeratu eta hezi ziren aroa da Neolitikoa. Hori izango da Durangoko Arkeologia eta Historia jardunaldien aurtengo gaia. Atzo abiatu zituzten jardunaldiok: *Nekazariak eta abeltzainek osatutako lehen gizarteak. Neolitizazio-prozesua.*

Garai horretan hasi zen gizarte antolakuntza sedentarioa ezartzen, eta hainbat aldaketak eragin zuten, besteak beste, zeramikaren eta beste eskulangintza batzuen garapena. Testuinguru horri guztiari buruz jardun zuen EHuko Alfonso Alday irakasleak, atzo, jardunaldien lehenengo hitzaldian.

Arloko ikertzaile eta profesionalak, eta unibertsitateko irakasleek eskainiko dituzte zikloaren barruko beste bi berbaldiak ere.

Datorren egunean, maiatzaren 17an izango da bigarren hitzaldia

Datorren egunean, maiatzaren 17an izango da bigarren hitzaldia, eta *Nekazaritzaren sorrera Euskal Herrian* gaiaren bueltan jardungo du Lydia Zapata Peña irakasleak. Azken hamarkada bietako ikerketa arkeologikoak hartuko ditu oinarri Euskal Herriko nekazaritzaren hastape-nei buruz berba egiteko.

Durangoko Arte eta Historia Museoan, 19:00etan dira saioak

Maiatzaren 24an emango dute zikloa amaituztat. Juan Carlos Lopez Quintana arkeologoak, *Monumentos megalíticos y paisaje de montaña del Gorbea entre 5000 y 3000 años antes del presente: recientes investigaciones* izenburuko hitzaldia eskainiko du egun horretan.

Durangoko Arte eta Historia Museoan, 19:00etan izango dira Arkeologia eta Historia jardunaldiaren saio guztiak. ■ I. E.

Gremioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOKA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Televis
Instalazioak
Ongarria

AROTZERIA

EGUIA S.L.

AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberriak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.ul@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



@anbotokirola

KIROLAK >

Maila galdua, hausnarketa eta autokritika egiteko sasoia dute Sasikoa eta Elorriokok

Sasikoa bigarren urtez jarraian jaitsi da; Hirugarren mailan Mallabia da bertan geratzeko aukerak dituen talde bakarra



K. Aginako

Durungaldeko areto futbolak beherakada nabarmena izan du aurten. Batez ere, mailarik altuenetan ari diren ordezkarien artean. Sasikoa taldeak maila galdu du bi urtez jarraian. Elorrioko Buskantza ere Sasikoagaz batera jaitsi egingo da Euskal ligara. Hirugarren mailari eutsi diezaiokeen bakarra Mallabia da, baina estu eta larri dabilta. Estu sailkapenean eta larri ekonomikoki. Beraz, datorren denboraldian Euskal liga Durungaldeko ordezkariak beteta egon daiteke, aipatutako hirurei eta dagoeneko maila horretan ari den Kurutzigari Abadiñoko Lagun gehitu dakiekelako Maila gorenetik igota.

Sasikoak eta Elorriokok autokritika egin eta etorkizunaz hausnartzeko sasoia datorrela diote. Durangoko taldeko entrenatzaile Iban Urnietak onartu duenez, urte bitan segidan maila galdua, ezin dute balorazio positiborik egin, baina lehenengo taldeko jokalariei ezin die ezer aurpegiratu: "Inplikazio osoa erakutsi dute eta partidu askotan joko ona egin dugu".

Beraz, zergatik jaitsiko dira? Futboleko oinarrikoak diren jokalariek falta izan zaizkielako: aurrelari errematatzailea eta atezaina. "Atezainak lesionatuta izan ditugu eta sarritan jokalariek gorde dute atea; horrek asko mugatu gaitu". Sasikoa A euskal ligara jaitsiko denez, maila horre-

tan ari den Sasikoa B taldea ere Maila gorenera jaitsiko da automatikoki. Bigarren taldea ere eskas ibili da aurten (sei puntu bakarrik 24 partidutan) eta Urnietak "dezepzionatuta" dagoela onartu du. "Ez dut talde nagusian adinako inplikaziorik ikusi". Horiek horrela, klubean "berrantolaketa sakona" egingo dutela iragarri du. "Jokalaria asko joan eta berriak etorriko dira".

Elorriokon hausnarketa

Egon hadi lo eta jango duk mehe atsoitzagaz laburbildu daiteke Elorrioko Buskantzak maila galdu izanaren arrazoietako bat; edo bestela esanda, Iñigo Astarloa jokalarieren berbetan: "Berandu hasi genuen aurreneboraldia, herriko jaiak ere bai tartean... Eta jakina, arerioak zelaian ordenatuta egoteagaz bakarrik erraz irabazten ziguten".

Ondoren, "desmotibazioa" etorri zen, emaitzak ez zirelako heltzen. Beste faktore batzuk ere badaude: entrenatzaile finko baten falta, taldea nahi baino laburragoa izatea... "Gauza txiki asko pilatu zaizkigu". Laster klu-

Iñigo Astarloa: "Laster batzarra deituko dugu hausnarketa egiteko"

beko batzar orokorra deitzeko-tan dira: "Etorkizunari begira egoerari buelta emateko hausnarketa sakona behar dugu".

Federazioagaz tira-bira

Sasikoa eta Elorrioko ez daude bat ere konforme Euskadiko

Federazioak aurten eman dien tratuagaz. Kasu bitan araudia gaizki aplikatu dietela uste dute eta kaltetuta sentitzen dira. Hona hemen azia: Sasikoak eta Elorriokok B mailako taldeak dituzte. Araudiak dio talde horiek filial modura izendatuta badaude 23 urtez azpikoek bakarrik jokatu ahal dutela talde nagusiagaz. Aldiz, menpeko talde modura izendatuta egonez gero, 23 urte-tik gorakoek ere jokatu dezake-taldea nagusiagaz.

Sasikoako Iban Urnietak eta Elorrioko Buskantza Iñigo Astarloak diote eurenak menpeko taldeak direla.

Kontua da, Sasikoak Gora Naturgas Energiaren aurka (Gernikako taldea) eta Elorriokok San Jorge Santurtziren aurka 23 urtetik gorako jokalariek erabili zituztela (Elorriokok 23 urte eta 11 hilabete zituen). Partidu biak irabazi zituzten. Aurkariek Euskadiko Futbol Federazioari jakinarazi ostean, federazioak puntuak kentzeaz gainera isuna jarri zien. Ondoren, biek helegitea aurkeztu arren, ez zieten onartu.

Sasikoak ez zuen Espainiako Federazioari jo, epea pasatu zitzaizkion, baina Elorriok epearen barruan aurkeztu du apelazioa. Puntu horiek berreskuratuta ere ez diote mailari eutsiko, baina "justizia" gura dute: "Araudia askotan irakurri dugu eta arrazoiak dugula uste dugu". ■ J. D.

Babesleak huts egin dio Mallabiari eta larri dabil

Mallabiari igoerek ez diote bertigorik eragiten. Azken urteetan lau igoera lortu ditu eta aurten Hirugarren mailari eusteko aukerak dituzte. Jardunaldi biren faltan, jaitsieran dagoen Meatzari taldeak baino hiru puntu gehiago dituzte eta azken partidua elkarren kontra jokatuko dute.

Dena dela, baliteke kantxan irabazitakoa finantziario faltagatik galtzea. Aurreko legegintzaldian Hierros Servando enpresak kultur eta kirol taldeei laguntzeko konpromisoa hartu zuen, Mallabiko Udala bitartekari zela. Areta futbol taldearen kasuan, lau urterako laguntza, 3.000 euro urtero.



Juanra de la Cruz

Aurten Hierros Servandok ez die laguntza hori eman eta, klubeko kideen arabera, kopuru hori barik ezingo diote mailari eutsi. Enpresagaz hartu-emanetan ipintzen ahalegindu dira, baina ez diete erantzun. Beraz, finantziarioa beste bide batzuetatik lortzeko hainbat ekimen prestatu dituzte.

Maiatzaren 26rako eta 27rako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritatik etorriko diren gaztetxoekin areto futbol txapelketak antolatuko dute.

Ekainaren 8tik 10era, berriz, euskararen aldeko areto futbol maratonia egingo dute, udalak babestuta. Izen-ematea 80 euro da eta ekainaren 3ra artekoa da izena emateko epea. Saria 1.800 euro dira.

Azkenik, ekainaren 15etik 17ra binakako frontenis txapelketa antolatuko dute. Ekainaren 10era arte eman ahal da izena. Telefono honetara deitu daiteke apuntatzeko: 669 028 718. ■ J. D.

Gogoratzeko modukoa izanda, garaipen goseari esker

Tabirako Baque estu ibili zen iaz; aurten, onenen artean aritu dira



Denboraldia sasoian amaitu dute eta azkenengo zortzi partiduetatik sei irabazi dituzte. K. Aginako

Iaztik hona jokalaririk gutxi aldatu diren arren, emakumezkoen Tabirako Baque taldeak gaue- egunerako aldaketa izan du. Iaz behereko zuloan balantzan ibiltzetik, aurten onenekin borrokatzera pasatu dira. Denboraldia laugarren amaitu dute, liga hasi aurretik indartsuagoak ziruditen Ardoi eta Loiola taldeen aurretik. Alberto Molina entrenatzailearen berbak dira: "Urte gogoangarria izanda, eta espero baino askoz hobeto ibili gara". Bigarren itzulian hamahiru partiduko jokatu eta hamar irabazi dituzte.

Alberto Alonso: "Beste urtebetetz emakumeen taldea entrenatzen jarraitzea erabaki dut"

Errendimendu on horren arrazoiak bi dira. Batetik, taldeak "garaipen gosea" erakutsi du: "Mailari eustea segurtatuta genuenean ere, garaipena bilatu dugu beti". Bestetik, Nuria Maortua eta Miren Mancisidorren jokoa eta esperientzia oso balio-

tsuak izan zaizkie. Iaz denboraldi erdia bakarrik jokatu ahal izan zuten eta aurten urte osoan egon dira jokatzeko prest.

Alberto Molinak bere etorkizuna ere argitu gura izan du:

"Gizonen taldea entrenatu neza keela esaten zen, baina beste urtebetetz emakumeak entrenatzen jarraitzea erabaki dut. Uste dut taldeak merezi zuela nire aldetik ahalegin hori". ■ J.D.

Gazteak Espainiako txapelketa jokatzeko sailkatu dira

Tabirako Baque klubeko gazteen taldea Espainiako saskibaloiko txapelketa jokatzeko sailkatu da bigarren urtez. Euskadiko txapelketan txapeldunorde geratuta lortu dute eskubide hori. Espainia-

ko onenak Zaragozan lehiatu-ko dira maiatzaren 13tik 20ra. Molinak dioenez, "aurten jokalaririk bat baino gehiago igo dugu lehen taldera. Datorren urtean maiztasun handiagoz igoko ditugu".



ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez
Euskaltel Euskadiko
Txirrindularia



Atsedena gutxi

2012ko Italiako Giroa martxan da. Lasterketa oso gogorra da txirrindulariarentzat. Etapa luzeak dira eta mendateak azken astean kontzentratzen dituzte, indarrak justuen daudenean. Baina parte hartzen duten txirrindulariek gehien nabarmentzen dutena da etapa batetik bestera egoten diren lekualdaketak. Sarritan, 200 kilometroko lasterketaren ondoren, autobusa hartu eta beste 200 kilometro egiten dituzte, eta hotelera afalorduan heltzen dira. Askotan ez da egoten ez atsedena hartzeko eta ez masajerik hartzeko astirik. Zaleek ez dute hori gutzia ikusten, baina lehia are gogorragoa egiten du.

Batzuetan lasterketako antolatzaileek ahaztu egiten dituzte xehetasun horiek eta etapa batetik bestera bidaia luzeak egin behar izaten ditugu. Dena dela, seguru nago ez dela batere erraza lasterketa bat antolatzea, eta are gutxiago gaurko krisi egoerari. Horregatik, antolatzaileei (batzuetan lana zailtzen diguten arren), babesleei eta txirrindularitzaren alde lan egiten dutenei eskertu egiten diegu.

Kirol honek aurrera egin dezan, garrantzitsua da txirrindularitza ikusaraztea eta zaleek gozatea. Konfiantza irabaziko luke txirrindulariak, eguneroko entrenamenduekin 21 egunez segidan eta deskantsu mugatuekin lehiatzeko kapaz garela sentitze-ko. Hori gutzia dopin eta antzekorik gabe, dena zalantzan ipintzen den sasoiotan. Gaur egun, txirrindularitzan dopatzea Balmasedako tuneletik Maxcenterrena 150 kilometro ordura joan eta radarren batek harrapatuko ez zaituela uste izatea lakoa da.

* Erredakzioan itzulia

Igoera lortuta maila galdu ahal du Anbotopekok

Anbotopeko saskibaloiko taldeak Lehen erregional bereziko Lauko Finala jokatu du maiatzaren 19an eta 20an Mungian. Irabaziz gero igotzeko eskubidea izango luke, baina dauden mailari eusteko ere komerkiak dituzte. Izan ere, federazioko eskakizun berriek diote kadete eta gazte mailako taldeak izan behar dituztela eta Anbotopekok ez ditu. Irtenbiderik aurkitu ezearan maila galdu dezakete.

Klub indartsuago baten barruko talde bihurtzea izan daiteke aukeretako bat eta hori posible egiteko lanean dabilzala adierazi dute. ■ J.D.

Ohorezko B mailari eutsi dio Ilarduyak

Azkenengo kanporaketan segurtatu du Durango Ilarduya errugbi taldeak Ohorezko B mailan beste urtebetetz jarraitzea. Denek espero zuten Ilarduya Asturiasko Belenos taldeari gailentzea, baina usteak zelaian islatu behar izaten dira eta Zorion Zabalarren eta Maxi Mendezzen gizonak goitik behera nagusitu dira bai Asturiarren (10-48) eta bai joan zen asteburuan Arripausueta zelaian (49-12).

Helburua bete du Ilarduyak, baina Zabalarren ustez "mailari liga erregularrean eusteko maila dugu, azken aukerari itxaron barik". ■ J.D.

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

momotxo
t a b e r n a
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

katerin ardoak
iñaki uribe

saltan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltan.com

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

Datoa eta C/El GARCIA, de Ribera, s/n de la Alameda del Cordero - TXARRIDENA
El cura del cura a los ojos. Pizarrak, hamaitan, hamaitan

ALBERDI

prekozinatuak

Ilusioz hasi, etsipenez bizi eta esperantzazagaz amaitu zen finala

Durangaldeko hainbat herritako plazak eta tabernak jendez bete ziren finala jarraitzeko



Elorriko Herriko plaza zalez beteta. Zaloa Fuertes



Gazte ugari pozarren partidua hasi aurretik, Plateruenean.



Iurretako alkate Iñaki Totorikaguena.

Ilusiotik etsipenera eta etsipenetik esperantzara. Ordu eta erdian sentimenduen abaniko zabala barru-barrutik sentitu zituzten athletic zaleek Europa Leagueko finalean. Sentimenduen koktel horretatik zaleak zeinekin oheratu ziren jakitea ez da erraza, baina barruari kasu eginez edo mezu positibo bat zabaltzeko beharrezana nabaritzen zelako, esperantzarena izan zen ahoz aho zabaldu zena: "Maiatzaren 25eko Errege Kopako finala irabaziko dugu, seguru", esan zion Plateruenean lagun batek burumakur zegoen beste bati.

Durangaldeko hainbat herritako plazetan edo kaleetan (Elorrio, Abadiño, Mañaria...)

"Errege Kopako finala irabaziko dugu, seguru", lagun batek burumakur zegoen beste bati

pantaila erraldoiak ipini zituzten finala jarraitzeko. Durangon Plateruena kafe antzokia ere lepo bete zen. Jokalariak zelairatu zirenean, Llorente, Muniain eta enparauak hantxe bertan baleude bezala txalotu zituzten Platerueneko zaleek. Egia hori, une hartan porrota ez zen inoren aurreikuspenetan sartzen. Athleticen unea zela uste zen: "1997an galdu egin genuen eta gaur irabaztea egokitzen zaigu".

Falcaoren lehenengo golak ez zuen *justizia* gailenduko zenaren sentsazioa amatatu. Asko falta zen oraindik. Zaleengan etsipena zabaldu zuena, oro har, minutuz minutu handitzen joan zen Athleticen nahi eta ezina izan zen: erritmo motela, Atletico Madrilen proposatutako amaraunean kateatuta... Falcao eta Diegoren golek sumatzen zena baieztatu besterik ez zuten egin.

Hilaren 25ean beste aukera bat izango du Athleticek, esperantza zorian bihurtzeko. ■ J.D.



Plateruenean partidua aurretik saheskia afaltzen.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Lagun Onak
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.
OHOREZKO MAILA

Elorrio - Gurutzeta

Domekan, 11:15ean, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldia - Padura

Zapatuan, 17:30ean, Solobarran.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Moraza B

Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

Iurretako B - Ezkurdi

Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain.

Elorrio B - Otxarkoaga

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Elorrioko

Domekan, 12:00, Landakon.

EUSKAL LIGA

Kurutziaga - Sasikoa B

Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroledegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoako Lagun - Akelarre

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun.

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

(jaitsiera fasea)

Tabirako - Lizuan ISB

Zapatuan, 17:00, Landakon.

PILOTA

SAN TROKAZ (finalerdiak)

Kadeteak:

- Olazola-Martinez /

Arteaga-Aranguren

- Labaka-Aburuza /

Bakaikua-Goñi

Promesak:

- Legorburu-Galarza /

Gallurraide-Sanchez

- Arablourrutia-Aspuru /

Iriondo-Murgiondo

Domekan, 16:30ean, Zelaietan.

Unda Londresen da eta Lejarreta hara bidean

Maidar Undak azken unean lortu du Joko Olinpikoetara sailkatzea; Iñaki Lejarretaren parte-hartzea datozen aste bietan argituko da

Uztailaren 27an Londresen hasiko diren Joko Olinpikoetarako gero eta gutxiago falta da eta orain lau urte legez Durangaldeak ordezkari bi izan ditzake lehian: Maidar Unda oletarra (34 urte) borroka librean eta Iñaki Lejarreta berriztarra (28 urte) mendi bizikletan. Undak joan zen asteburuan lortu zuen sailkapena. Lejarretaren parte-hartzea datozen bi asteburuetan argituko da, Munduko Koparako lasterketetan.

Undak azken aukeran lortu zuen sailkapena, joan zen asteburuan Finlandian jokaturako txapelketan: "Aurreko kanporaketetan urduri egon nintzen, bai egunean bertan eta bai aurreko egunetan. Finlandian, aldiz, lasai aurkitu nintzen eta horrek konzentratzen lagundu zidan".

Orain atseden hartuko du egun batzuetan: "Azken asteak gogorak izan dira fisikoki zein mentalki". Ostean, Joko Olinpikoak prestatuko ditu burubelarrri: "Batez ere etxean entrenatuko dut, gusturen sentitzen naizen tokian". 34 urtegaraz beharbada azken jokoak izango ditu: "Hala ere, oraindik ondo sentitzen naiz, eta ez dut txapelketa ofizialetatik erretiratzeko asmorik". Joko Olinpikoetan ariko den bigarren aldia izango da. Beijing-en diploma olinpikoa irabazi zuen.

Lejarreta esperantzekin

Iñaki Lejarreta lehen aukeratuaren artean dago, Hermida, Coloma, Mantecon, Alvarez eta Ruzafagaz batera. Horietatik hiru joango dira Londresera.

Kirolari biek diploma olinpikoa irabazi zuten orain dela lau urte

Cristobal Sanchez hautaileak Munduko Kopako lau probetan egindako lana hartuko du oinarri aukeraketa egiteko. Orain arteko bietan, "ez naiz espero bezain ondo ibili, baina Hermida kenduta, besteen aurretik geratu naiz". Hurrengo proba biak asteburu honetan eta hurrengoan izango dira Txekiar Errepublikan eta Frantzian.

Lejarretak ere bigarren aldia luke Jokoetan. Beijing-en diploma olinpikoa irabazi zuen. ■ J.D.





Datozen zortzi urteetarako hausnarketa hasiko dute Durangon, Agenda 21 egaz

Parte-hartze foroa bost arlotan bereiztea proposatuko du udalak; orain artekoa ebaluatu eta ekintza berriak definituko dituzte

Gaur egungo diagnostikoa egiten hasiko dira maiatzaren 17ko foro irekian

Agenda 21eko webgunean eta sare sozialetan jartzen dituzte batzarretako aktak

Orain arteko Agenda 21eko Ekintza Plana agortuta, datozen urteetarako egitasmoak pentsatzen hasteko partaidetza foroak hasiko dira maiatzean Durangon. 2007 eta 2011 urteen arteko Ekintza Plana ebaluatu eta gaur egungo diagnostikoa egiten hasteko lehen hitzordua maiatzaren 17an izango da, 19:00etan, Elkartegian. Orain arte egin diren moduko herritarren foro irekia izango da, baina ez foro bakarra. Udalak ekintza plan berria egiteko taldeak egin gura ditu, arloka.

Foro ekonomikoa, merkatarien foroa, gizarte arlokoa, gazteena eta herritarren foro irekia. Bost talde proposatu dituzte Durangoko udal arduradunek datozen zortzi urteetarako Agenda 21 lantzeko. 2006 amaieran diseinatutako Ekintza Planaren %90 beteta, plan berri bat diseinatzen hasiko dira; maiatzean ipiniko dituzte martxan foroak.

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak azaldu duenez, foro ekonomikora enpresak, sindikatuak eta eragile ekonomikoak gonbidatuko dituzte. Merkatarien foroan, berriz, PERCO mahaiaren parte-hartzaileak batuko dira. Gizarte forora, arlo horretan behar egiten duten elkarte eta GKEak gonbidatuko dituzte; Irigorasek aipatu du gizar-

te arloan behar egiteko premia dagoela: "Orain arte ingurugiroari eman zaio agian garrantzia handiagoa". Gazteen forora, ikastetxeak eta gazte elkarteak gonbidatuko dituzte. Horiez gainera, herritarren foro irekiak ere bere bidea jarraituko du.

Foroek gainera, Agenda 21eko webgunean eta sare sozialetan ere badago aukera diagnostia edota batzarretako aktak deskargatu eta ekarpenak egiteko.

"Inportantea da ekarpenak egitea"

Agenda 21eko lehen ekintza planaren hainbat egitasmo nabarmendu dituzte alkateak eta Aitor Larruzea Agenda 21eko teknikariak: ikastetxeetan egiten duten Eskolako Agenda 21 aipatu dute, eta hor, Landako Eskolan egindako Eskola Bidea egitasmoa. Aldaketa klimatikoaren kontrako plana, mugikortasun jasangarriaren plana eta airearen kalitatearen plana ere aipatu dituzte.

Aitor Larruzeak azaldu duenez, lehen ekintza planerako 9 milioi euro aurreikusitako ziren, eta azkenean 15 milioi euro gastatu dituzte: "Inbertsioa garrantzitsua dela jakin behar dute herritarrek, eta horregatik dela inportantea durangarrek ekarpen ugari eta baliagarriak egitea".

Sortu gura dituzten foroak

Ekonomikoa: enpresekin, sindikatuekin eta Durangoko eragile ekonomikoekin.

Merkatariena: PERCO mahaiako kideekin, merkataritxikiarekin.

Soziala: gizarte arloan jarduten duten elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeekin (GKE).

Gazteena: ikastetxeekin eta gazteen elkarteekin.

Herritarren foro irekia: orain artekoa modukoa.

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00


Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

AGENDA >

> ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Maiatzaren 12an, 21:30ean, Durangoko Sapuetxe Gaztetxean

POLIPUTOS

1986 eta 1989 artean jardun zuen Durangoko Poliputos taldeak, eta iazko ekainean batu ziren atzera. Urte amaieran diskoa kaleratu zuen Poliputosek, eta Durangoko Sapuetxe Gaztetxean joko du, bihar. Galiziako Konflikto eta Sarturtziko TMG taldeak ere ariko dira Sapuetxeko kontzertuan.

ANTZERKIA

DURANGO

- » Maiatzaren 12an, **Nadie lo quiere creer. La patria de los espectros**, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.
- » Maiatzaren 13an, **Arratoitxo pinpirina**, 18:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

- » Maiatzaren 11n, **Nadie lo quiere creer. La patria de los espectros**, 22:00etan, Arriolan.
- » Maiatzaren 25ean, **Salir**, Coliflor Circo Teatro taldea, 19:30ean, Arriolan.

ZORNOTZA

- » Maiatzaren 12an, **Zugan Ni Eguna**, 12:00etan eta 18:00etan, Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

DURANGO

- » Maiatzaren 17an, **Bertsoa epaitu liteke? Asier Ibaibarriaga**. DF Bertsozale eskolan, 19:30ean, Plateruenean.
- » Maiatzaren 17an, **Nekazaritzaren sorrera Euskal Herrian. Lydia Zapata**. Arkeologia eta Historiaren jardunaldia, 19:00etan, Arte eta Historia Museoa.

BERTSOAK

ABADIÑO

- » Maiatzaren 11n, **Durangaldeko bertsolari txapelketaren finala**, 22:00etan, probalekuan.

MALLABIA

- » Maiatzaren 13an, **Hamabostaldi kulturala**. Bertso saioa, 17:30ean, pilotalekuan. Bertsolariak: Beñat Ugartetxea, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Iker Zubeldia, Andoni Egaña.

ERAKUSKETA

ELORRIO

- » Maiatzaren 19ra arte, **Euskal Herriko hilarriak**. Pedro Zarrabeitiaren argazkiak, Iturri kultur etxean.

JAIK

ABADIÑO (San Trokazak)

- » Maiatzaren 12an, **Gerbasen kalejira**, 12:00etan, San Trokaz plazan. Jarraian, **kartel lehiaketako sari banaketa**. **Bazkari herrikoia**, 14:00etan, Ferialeku plazan. Herritarren arteko **jolasak**, 18:00etan, Ferialeku plazan. Erromeria **Luhartz** taldeagaz, 20:00etan, Txanporta plazan. **Parrillada**, 20:00etan, Txanporta plazan. **Segismundo Toxicómano** eta **Namek Planet**, 23:00etan, Txanporta plazan.
- » Maiatzaren 13an, **San Trokaz igeriketa txapelketa**, 11:30ean, udal igerilekuan. **Ugasixo txapelketa**, 13:00etan, Ferialeku plazan. **Herri Maite akordeoi taldearen** kontzertua, 19:00etan, Nagusien Egoitza aurrean.
- » Maiatzaren 14an, **kanpaien errepikaldi alaia**, 14:00etan, San Trokaz elizan. **Jolasak**, 17:00etan, Ferialeku plazan.
- » Maiatzaren 15ean, **Ezpatadan-**

tzari eta irlanderen dantzaldia, 12:00etan, San Trokaz plazan.

Eskuz binakako San Trokaz sariaren finalurrekoak, 18:00etan, trinketea. Erromeria, **Arantza eta Pantxogaz**, 19:00etan, Txanporta plazan.

» Maiatzaren 18an, **Libertia**, Hortzmugaren umeentzako antzezlan, 18:00etan, probalekuan. **Mikel Markez** eta **Erramun Martikorena**, 22:30ean, probalekuan.

» Maiatzaren 19an, **Bizikleta martxa**, 10:00etan, Txanporta plazatik irtenda. Gaztelurako **kronoigoera**, 12:00etan, kanposantutik. **Paella txapelketa**, 14:00etan, Ferialeku plazan. **Eskuz binakako San Trokaz sariaren** umeen finala 16:00etan, frontoian. **Umeentzako jolasak**, 17:00etan, Ferialeku plazan. **Triki-bertso poteoa**, 18:00etan. **Argazki herrikoia**, 19:00etan, Txanporta plazan.

Abesbatzen ekitaldia, 20:00etan. **Gozategi** taldearen erromeria, 20:00etan, eta, **Gramones eta Gerttzainak**, 23:30etan, Txanporta plazan.

» Maiatzaren 20an, **Futbito eta saskibalo partiduak**, 10:00etan, eskoletan. **Binakako San Trokaz pilota txapelketaren** finala, Tornosolo trinketea. **Kalejira**, 11:00etan, Txanbolin taldeko txistulariekin. **Talde Batuak** taldeko umeekin kalejira, 17:00etan. **Txokolatada**, 19:30etan, Txanporta plazan. **Gerbasi agurra**, 20:00etan.

KONTALARIA

DURANGO

- » Maiatzaren 18an, **Txefo Rodriguez eta Anduriña Zurutuza**, 20:00etan, Bibliotekan.

MUSIKA

DURANGO

- » Maiatzaren 11n, **Soinua Musika ikastegiko** ikasleen kontzertua, 18:30ean.
- » Maiatzaren 12an, **Tabira Musika bandaren** kontzertua, 20:00etan, Ezkurdiko kioskoan. Ezkurdiko kioskoaren 110. urteurrena.
- » Maiatzaren 12an, **Konflikto, TMG eta Poliputos** taldeen kontzertuak, 21:30ean, Sapuetxe Gaztetxean.
- » Maiatzaren 18an, **Los del Gas**, 22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

» Maiatzaren 12an, **Bastards On Parade, Dirty Brothers** eta **Txabolakumeak**, 22:30ean, Elorrioko gaztetxean.

MAÑARIA

» Maiatzaren 12an, **B.E.K.** taldearen disko aurkezpena, eta **Boot Boys** taldearen emanaldia 22:00etan, U2 tabernan.

ZORNOTZA

- » Maiatzaren 11n, **Shine Jazz Manouche**, 20:00etan, Duedeako San Migel basilizan. Eleizetan jaialdiaren baitan.
- » Maiatzaren 13an, **Sonar** haize boskotea, 12:00etan, Bernagoitiko San Migel basilizan. Eleizetan jaialdiaren baitan.

ZINEMA

DURANGO

- » Maiatzaren 11n, **Gazta zati bat**, dokumentala. 20:00etan, Plateruenean. Jon Maia zuzendariagaz.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Sombras tenebrosas

Zuzendaria: *Tim Burton*
barikua 11: 19:00/22:00
zapateria 12: 19:30/22:30
domeka 13: 19:30/22:30
astelehena 14: 19:00/22:00
martitzena 15: 20:00

Umeen zinema

The Wish Fish

Zuzendaria: *Gorka Vázquez*
zapateria 12: 17:00
domeka 13: 17:00

Zineforuma

Tan fuerte tan cerca

Zuzendaria: *Stephen Daldry*
eguna 17: 20:30

ELORRIO

Arriola

Al borde del abismo

Zuzendaria: *Asger Leth*
zapateria 12: 22:30
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Todos los días de mi vida

Zuzendaria: *Michael Sucusy*
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

e t x e a
i a t
j a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA

10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA, Landako atorbidea, 4.A.
- 48200 Durango, Jateketa: 946030300

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Maiatzaren 8an **Ane Murgoitiobeñak** 10 urte bete zituen. Horrela jarraitu eta ondo pasa udalekuetan! Aita, ama eta familia osoaren partez!



Zorionak **Libe**, bihar, maiatzak 12 zure urtebetetzea da! Ondo pasa txokolatadan lehengusu denekin. Musu asko eta ondo pasa guapa!



Datorren eguaztenez, maiatzak 16, gure etxeko printzesak 7 urte egingo ditu. Zorionak **Amets!** Musu handi bat ama, aita, Joseba eta Marenen partez!



Asteazkenean **Andonik** 13 urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada handi bat zure anaia eta familia osoaren partez!



Zorionak **Irigo!** Pasadan maiatzaren 8an 42 urte bete dituzulako. Besarkada handi bat eta musu potolo asko Matienakoen partez!



Zorionak **Ieneko!** Maiatzaren 9an 24 urte bete zituen. Musu handi pila Jon Ander eta Itxasoren partez. Zapatuan ospatuko dogu!



Eurik 6 urte bete zituen joan den ostegunean. Zorionak eta musu potolo bat etxeko guztion partez. Asko maite zaitugu!



Marianak, maiatzaren 8an urteak bete zituen. Zorionak Carmenen partez! Gehiago bete ditzazun eta guk ikus ditzagun!



Zorionak **Aitor!** Gure mutilxoak 3 urte bete ditu eta larunbatean ospatuko dugu. Musu handi bat etxeko partez!



Zorionak **Ekain!** Guztion partez maiatzaren 9an 5 urte bete dituen gure Muniain txikiari, munduko musurik handiena!



Gure poxpolin txikiek maiatzaren 16an urteko bat beteko dau. Zorionak **Maia!** Musu pila familiaren aldetik eta aaabaaa potolo bat Junen partez!



Madrilgo finalera joateko prestatzen ari gara, benetako lehoien erara. Zorion onak opa dizkiogu geure buruari! **Andoni** eta **Juantxo**.



Zorion zorionsuak opa deusuguz **Pedro**, Matiena aldetik zutaz gogoratzen garela ikus dezazun. Besarkada bat eta urte askotarako!



Zorionak amatxoak! Zuetaz gogoratzen garela ikus dezazuen musu eta besarkada bat! Zuen morala eta fisikoa izateko sekretua kontatu behar diguzue!



Hamabostean behin zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Beharrezkoa da mezuagaz batera kontakturako datuak bidaltzea.

BOTIKAK >

- Barikua, 11**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Zapatua, 12**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale, 6, Durango)
09:00-13:30
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- 09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- 09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
- Domeka, 13**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Astelehena, 14**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- 09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, 4-Abadiño)
- Martitzena, 15**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J. A. Abasolo 2 -Durango)
- Eguaztena, 16**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
- Eguena, 17**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- 09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
- DYA**94 620 28 00
- Gurutze Gorria**94 681 09 49
- Osakidetza**94 600 72 00
- Ertzaintza**94 466 93 00
- Suhiltzaileak**112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
- Matiena606 45 99 88
- Durango Geltokia94 681 10 01
- Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
- J.L. Uriarte670 40 20 02
- I. Estebez670 67 82 73
- M Galeano670 40 93 30
- lurreta94 620 15 65
- Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz.....94 682 45 84
- Durango.....94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- lurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia.....943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
- Berriz.....94 682 40 36
- Durango.....94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

- 14
27° BARIKUA ☁
- 12
18° ZAPATUA ☁
- 6
19° DOMEKA ☀
- 6
24° ASTELEHENA ☁
- 4
18° MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) -
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
- Porruak..... 1,80 euro/tx
- Kalabaza..... 2,20 euro/kg
- Azenarioak..... 1,50 euro/tx
- Azelgak..... 2 euro/kg
- Bruselazak..... 3 euro/kg
- Espinakak..... 1,50 euro/tx
- Indabak..... 15 euro/kg
- Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
- Espeltazko ogia..... 3,60 euro



"Jatekoa gure etxean beti izan da sakratua"

Errota Zarra jatetxeko sukaldariak dio nortasunak eta animoak jatekoan eragiten dutela, eta sentsazio berriak probatu behar direla

Durango eta lurreta arteko zubian dago Errota Zarra jatetxea. Antzinarako errota hau, Mingolarraren etxea legez ezaguna da. Interes arkitetkoniko handiko eraikina da, babestutakoa. Jatetxea eta puba sortu dituzte bertan. Sukaldeko ardura Lander Urienek daroa. Txikitari, amaren baba lapikoaren magiak eraginda hasi zen suagaz eta jatekoagaz jolasten.

Zerk piztu zizun sukaldari izateko gogo?

Jatekoa gure etxean beti izan da sakratua. Kontxo, amak baba lapikoa atera eta pentsatzen nuen, zelan egingo du? Norbera egin eta desberdin irten. Har horregaz hasi nintzen. Gero, ikasketetarako ez nuela balio-eta, ostalaritza ikasi nuen. Handik aurrera lana, eta lan eginda ikasten da.

Bezeroaren iritzia eskertuko da zure laneari.

Sukaldetik jantokira baten bat agurtzera irten, eta alboko mahai batetik ezezagun batek deitu eta esaten dit: "De puta madre bazkaldu dut". Ezagun batek, normalean, beti esango dizu ondo jan duela. Ezezagun batek esatea oso pozgarria da.

Zer eskaintzen duzue Errota Zarra jatetxean?

Hemen eskaintzen duguna betiko jatekoa da, betiko produktuak. Bertoko sukaldaritza ukitu moderno batez. Erregegi itxurako eskatza da gurea. Artearen ikatzagaz egiten dugu brasa. Lehenengo zein bigarren platerak txingarretan egiten ditugu normalean: txirlak, ganbak... Arrainak Lekeitio eta Ondarroatik ekartzen ditugu, eta okela, idi-txuleta galiziarra daukagu normalean. Eskualdean egongo den okelarik onena da.

Zer nabarmenduko zenuke?

Gehienbat txuleta. Hona txuleta jaten etortzen da jendea. Bestela, txirlak, zapoa, legatza... Barazkiak soja, karamelo eta beste ukitu fresko batzuek ere egiten ditugu. Kartatik aparte, orain dastatzeko menu bat prestatzen gabilta. Udan terrazan ere emango dugu

jaten. Gainera, aste osoan eskaintzen dugun menu tradizionala daukagu: babak sakramentu guztiekin eta txuleta. Prezio onean ateratzen da, eta arrakasta dauka. Gura duenak, jatetxeko goiko pisua taldeetarako alokatzeko aukera ere badauka.

Diozu kalitate handiko produktuekin egiten duzula lan. Horrek ere izango du bere xarma.

Normalean beti egin izan dut lan horrelako jeneroagaz. Adibide bat emateko, taxista bat izanez gero ez da berdina kristoren Mercedes-esa eduki edo 127 batean ibiltzea. Hori da aldea.

Ba al dago sekreturik jatekoak prestatzeko?

Lehenengo eta behin, norberari asko gustatu behar zaio lana, eta baita jatea ere. Sentsazioak probatzeko gogoia eduki behar dela esango nuke.

Bakoitzak bere sekretua edukiko du agian...

Niretzako, etxeko platerik onena amaren babak ziren. Saiatu eta ezin berdin egin. "Ama, hau zelan botatzen duzu, horrela? Nik ere horrela botako dut bada". Ipini eta ez da berdina. Zergatik? Bada, igoal nik birritan mugitzeko ohitura neukalako eta amak ez zuelako mugitzen? Nortasunak markatzen dituen xehetasun txikiak daude.

Bakoitzaren nortasunaz gainera, eguneko animoak ere eragina izango du, ala?

Askok. Ia guztiok egiten dugu jatekoa etxean, ezta? Umore txarragaz bazaude, bokata bat jaten duzu eta listo.

Kanpoko gauzak erabiltzen dituzue gehigarri legez?

Esaterako, jatetxe japoniar batera joaten naizenetan, saltsa bat gustatu eta esaten dut: "Kontxo, hau barazki batzuekin itzel egongo da!". Hemen gehien irteten den plateretako bat txingarretan egindako barazkiak dira. Soja saltsagaz urritzen dugu. Ozpinagaz garraztasuna ematen diogu. Txingarretatik pasa ondoren, platerean, saltsa eta mitoxoleta hazi batzuk botatzen dizkiogu.

Ahotik jaten da, baina begietatik eta sudurretik ere bai.

Bai. Bistara polita izan daiteke jaki bat, baina batez ere usainenak dauka eragina. Zerbait usaintzen duzu eta diozu: "Zelako gosea daukadan!". Bestalde, produktu freskoek daukaten usaina gustatzen zait niri. Eguneko mariskoak daukan itsaso usaina, hartu berri diren perretxikoek daukatena... Eskutan hartu eta usaintzea itzela da.

Lander Urien •

35 urte dauzka. Iurretakoa da.



Durangoko Udalari

Gure Uriko udalbatza gobernatzen duen alderdiari, baina baita ere enparau indar politiko guztiei zuzentzen natzaie, zeren eta, eztabaida zabal bat behar baita, garrantzi estrategikoko egitasmo bat erabakizun baitute: geltoki berriaren gainean zer egin? Bistan da ezingo dela egin arkitekta irakiarren proiektu babilonikoa. Krisi ekonomikoa dela-eta, oraingo Jaurlaritzak beste bide bat hartu du. Eraikuntza-uraren krisiari ere, etxe-bizitzaren ugari egiteko parada ez du ematen. Merkatalgunez ere aski hornitua da ingurua. Zer falta du, ordea? Eskualdearen hiriburu eta, EAEko ardatz estrategiko bat izatea nahi badu: *city administrative* delakoa.

Lehendabizi, lortu behar da, kosta ala kosta ETSren egoitza ekartzeta. 2. Aldundiak sakabanatuta dituen zenbait bulego: Ogasuna, eskualdeko nekazal bulegoa (OCA), gizarte ongizate eta beste sortu beharreko foru ordezkariak. 3. Jaurlaritzak dituen, edota, beharko lituzkeen ordezkariak: Lanbide, Hezkuntza Sailekoa eta beste. 4. Estatuarenak, F. Ibarra eta Tronperri kaleetan sakabanatuta dituen Asegurantza Sozialako bulegoak. 5. Amankomunazgoak aspaldi agertu du gogoia Urian zerbitzu administratiboak ekartzeko eta bateratzeko. 6. Udalak berak, udaletxetik kanpo dituen bulego edo zerbitzuetarako. 7. Bizkaian, oraingo Justizia Jauregia txiki geldituko dela entzun dut asteon, beraz, geltoki aldeira handitu beharko da laster.

Badute, beraz, alderdiek, administrazio bakoitzean agintean daudenak, bereziki, zer eskatu eta kudeatu.



PROMOZIO BERRIA MATIENAN

46 etxebizitza libre:

2 logela - 76,75 m²
3 logela - 92,10/97,40 m²
4 logela - 102,66 m²



• 20 etxebizitza tasatu:
2 logela - 58,45 m²
3 logela - 72,80 m²

• Garajeak eta trastelekuak

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com

Salmenta bulegoa obran bertan